

Eusko Ikaskuntzaren Deia

119.a
1993.2



**EUSKO
IKASKUNTZA**

1918 **75** 1993
URTE

A decorative white vine motif with leaves and grape clusters, positioned below the text '75 URTE'.

Eusko-Ikaskuntzaren Deia

**Boletín de la Sociedad
de Estudios Vascos**

**Bulletin de la Société
d'Etudes Basques**

PUBLICATION INTERNATIONALE
TRIMESTRIELLE

XIII Urtea - 2 Aroa - 119 Zenbakia
1993ko II Hiruhilabetea



**EUSKO
IKASKUNTZA**

*"Bekoak goikoa
eskondu leidi
ta txikiak andia
benzi leidi
asmoz ta jakitez"*

(Escudo de Armas de los AULESTIA. Bizkaia)

Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiako, Di-
putazioek 1918an sortutako erakundea

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones
de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa

Institution fondée en 1918 par les «Diputaciones»
d'Araba, Bizkaia, Gipuzkoa et Nafarroa.

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFI AZKO FITXA
FICHA BIBLIOGRAFICA RECOMENDADA
REFERENCE BIBLIOGRAPHIQUE RECOMMANDEE

EUSKO Ikaskuntzaren Deia = Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos = Bulletin de la Société d'Etudes Basques.- 1 zb. (1919) - 69 zb. (1936); 2. aroa 70 zb. (1981) /
.- Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1919-1936; 1981-

Trimestral

21 cm.

Hasta el nº 115 (1992) se titulaba: Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos = Eusko Ikaskuntzaren Deia.

I. Eusko ikaskuntza II. Eusko Ikaskuntzaren Deia III. Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos IV. Bulletin de la Société d'Etudes Basques

061.22(05)



Hauen laguntzarekin - Con el patrocinio de - Sous l'égide de:

ARABAKO DIPUTAZIO FORALA
BIZKAIKO DIPUTAZIO FORALA
GIPUZKOAKO DIPUTAZIO FORALA
NAFARROAKO GOBERNUA
EUSKO JAURLARITZA

EUSKO-IKASKUNTZA

Legazpi, 10 - 1.º 20004 - Donostia

Legezko gordailua: S.S. 643/93

Fotokonposaketa eta inprimaketa

Mixelena Artes Gráficas - San Sebastián

IDAZKARITZA NAGUSIA - SECRETARIA GENERAL- SECRETARIAT GENERAL

Gipuzkoako Diputazio Forala

Legazpi, 10 - 1º

20004 - Donostia

Telefonoa: 943 - 42 51 11

Fax: 943 - 42 22 50

Ordutegia/Horario/Horaire: 9'30-14 / 16-19

ARABAKO BULEGOA - OFICINA DE ALAVA - BUREAU D'ARABA

Arabako Diputazio Forala

San Antonio, 41

01005 - Gasteiz

Telefonoa - Fax: 945 - 23 15 52

Ordutegia/Horario/Horaire: 17'30-20

BIZKAIKO BULEGOA - OFICINA DE BIZKAIA - BUREAU DE BIZKAIA

Bizkaiko Diputazio Forala

María Díaz de Haro, 11 - 1º

48013 - Bilbao

Telefonoa 94 - 4 425 287

Fax: 94 - 4 414 650

Ordutegia/Horario/Horaire: 11-13'30

NAFARROAKO BULEGOA - OFICINA DE NAVARRA - BUREAU DE NAFARROA

García Castañón, 2 - 6º

31002 - Iruñea

Telefonoa: 948 - 22 21 05

Fax: 948 - 21 17 37

Ordutegia/Horario/Horaire: 11-14

IPARRALDEKO EGOITZA - SEDE DE IPARRALDE - SIEGE DE IPARRALDE

"Hegoa" - Villefranque

64990 St. Pierre d'Irube

Telefonoa: 59 449297

Fax: 59 449159

EUSKAL HERRIKO HISTORIA KONTENPORANEOKO

DOKUMENTAZIO ZENTROA

CENTRO DE DOCUMENTACION DE HISTORIA CONTEMPORANEA

DEL PAIS VASCO

CENTRE DE DOCUMENTATION D'HISTOIRE CONTEMPORAINE

DU PAYS BASQUE

Pampinot, z/g

20280 - Hondarribia. Gipuzkoa

Telefonoa - Fax: 943 - 64 10 77

AURKIBIDEA

1. AKTAK

1.1. 1993ko Martxoaren 27ko Batzorde Iraunkorraren bilera.....	7
--	---

2. TITULUAK ETA KARGUAK

2.1. Batzorde Iraunkorraren hedapena.....	30
---	----

3. KUTXAKO EGOERA

3.1. 1993ko I. Hiruhilabeteko sarrerak eta gastuak.....	33
3.2. Diruzaintza egoera 93.03.31n	35

4. IHARDUERAK

4.1. Orokorrak	
1993ko bigarren hiruhilabeteko agenda	36
1993ko Angel de Apraiz eta Agustin Zumalabe Bekak	37
Euskal Zuzenbide Pribatuari buruzko III. Ihardunaldiak	39
Tokian tokiko Historiari buruzko III. Ihardunaldiak	45
Oihenart-i buruzko Ihardunaldi-mintegia.....	48
Omenaldia. Argitalpenaren aurkezpena	49
1993ko Manuel Lekuona Saria ematea	50
Iberdrola-rekiko hitzarmena.....	53

4.2. Lan Sailak

Saileko Lehendakarien txostenak.....	56
Oxozelaia eta Istituzio haizuloetarako txangoa	60
1993ko II. hiruhilabetekoan harturiko ikerlanen laburpena.....	61
Kultur Ondarearen Kontserbaziorako Batzordearen sorrera.....	62

4.3. Beste erakundeekiko harremanak

Elkartearen partaidetza zenbait ekitalditan.....	65
Gamazadaren mendeurrenaren inguruko ekitaldiak.....	66
EHUarekiko hitzarmena.....	67

4.4. Denetarik

In Memoriam. Manuel Laborde Werlinden	68
Arkeologia materiala Nafarroako Gobernuari ematea.....	69

5. BAZKIDEAK

5.1. 69. Bazkide zerrenda.....	71
--------------------------------	----

6. ARGITALPENAK

6.1. Elkarrearen argitalpen berriak.....	72
6.2. 1993ko II. hiruhilabetekoan harturiko liburuen zerrenda.....	76

INDICE

1. ACTAS	
1.1. Sesión de Junta Permanente de 27 de Marzo de 1993	7
2. TITULOS Y CARGOS	
2.1. Ampliación de la Junta Permanente	30
3. ESTADO DE CAJA	
3.1. Ingresos y gastos del I trimestre de 1993	33
3.2. Situación de Tesorería en 31.03.93	35
4. ACTIVIDADES	
4.1. Generales	
Agenda del segundo trimestre de 1993	36
Becas Angel de Apraiz y Agustín Zumalabe 1993.....	37
III Jornadas de Derecho Privado Vasco	39
III Jornadas de Historia Local	45
Jornada coloquio sobre Oihenart	48
Homenaje. Presentación de publicación	49
Entrega del Premio Manuel Lekuona 1993.....	50
Convenio con Iberdrola	53
4.2. Secciones de Trabajo	
Informes de Presidentes de Sección.....	56
Visita a las cuevas de Oxozelaia e Isturitze.....	60
Resumen de los trabajos de investigación recibidos en el II trimestre de 1993.....	61
Creación de la Comisión de Conservación del Patrimonio cultural	62
4.3. Relaciones con otras instituciones	
Participación de la Sociedad en diversos actos	65
Actos en torno al centenario de la Gamazada	66
Convenio con la UPV.....	67
4.4. Varios	
In Memoriam: Manuel Laborde Werlinden	68
Entrega de material arqueológico al Gobierno de Navarra	69
5. SOCIOS	
5.1. 69ª lista de socios.....	71
6. PUBLICACIONES	
6.1. Nuevas publicaciones de la Sociedad	72
6.2. Relación de libros recibidos en Eusko Ikaskuntza en el II trimestre de 1993.....	76

SOMMAIRE

INDICE

1. ACTES	
1.1. Séance de l'Assemblée Permanente du 27 Mars 1993.....	7
2. TITRES ET NOMINATIONS	
2.1. Nouvelles incorporations à l'Assemblée Permanente	30
3. SITUATION FINANCIERE	
3.1. Entrées et sorties du 1er trimestre 1993.....	33
3.2. Situation de la Trésorerie au 31.3.93.....	35
4. ACTIVITÉS	
4.1. Générales:	
Agenda du second trimestre 1993.....	36
Bourses Angel de Apraiz et Agustín Zumalabe 1993.....	37
Troisièmes Journées du Droit Privé Basque.....	39
Troisièmes Journées d'Histoire locale.....	45
Journée-colloque sur Oihénar.....	48
Hommage. Présentation de publication.....	49
Remise du Prix Manuel Lekuona 1993.....	50
Accord avec la Société Iberdrola.....	53
4.2. Sections de Travail:	
Rapports des Présidents de Section.....	56
Visite aux grottes d'Oxozelaia et d'Isturitze.....	60
Résumé des travaux de recherche reçus au cours du second trimestre 1993	61
Création de la Commission de Conservation du Patrimoine Culturel	62
4.3. Relations avec d'autres Institutions:	
Participation de la Société à divers actes.....	65
Actes autour du centenaire de la Gamazada.....	66
Accord avec l'Université du Pays Basque.....	67
4.4. Divers	
In Memoriam: Manuel Laborde Werlinden.....	68
Remise de matériel archéologique au Gouvernement de Navarre.....	69
5. ASSOCIÉS	
5.1. Liste des membres associés n° 69.....	71
6. PUBLICATIONS	
6.1. Nouvelles publications de la Société.....	72
6.2. Liste des livres reçus à Eusko Ikaskuntza au cours du second trimestre 1993	76

Batzorde Nagusiaren Bilera

Martxoaren 27an. Bizkaia

Sesión de Junta Permanente

27 de Marzo. Bizkaia

Réunion du Comité Permanent

27 Mars. Bizkaia

■ 79 Akta. 1993ko Martxoaren 27an Bizkaiko Foru Aldundi Txit Garaiaren Jauregian Eusko Ikaskuntzako Batzorde Nagusiak egindako bilkurari dagokiona

Partehartzaileak:

Gregorio **Monreal** jn. (Lehendakaria), José M^a **Ortiz de Orruño** jn. (Arabako Lehendakariordea), Joseba **Agirreazkuenaga** jn. (Bizkaiko Lehendakariordea), Joxemartin **Apalategi** jn. (Gipuzkoako Lehendakariordea), Tomás **Urzainqui** jn. (Nafarroako Lehendakariordea), Edorta **Kortadi** jn. (Idazkaria), Gurutzi **Arregi** and. (Idazkariordea), Imanol **Olaizola** jn. (Biziarteko Kidea), Mirentxu **Goñi** and. (Antropologia eta Etnografia Saileko Lehendakaria), Laura **Aisenson** and. (Arte Plastiko eta Monumentak Saileko Lehendakaria), Xabier **Zabala** jn. (Natur Zientziak Saileko Lehendakaria), José Javier **Granja** jn. (Hezkuntza Saileko Lehendakaria), Lola **Valverde** and. (Historia eta Geografia Saileko Lehendakaria), Jose M^a **Etxeberria** jn. (Hizkuntza eta Literatura Saileko Lehendakaria), Germán **Yanke** jn. (Komunikabideak Saileko Lehendakaria), Alvaro **Arrizabalaga** jn. (Historiaurre eta Arkeologia Saileko Lehendakaria), Tomas **Uribeetxebarria** jn. (Bizkaiko Foru Aldundi Txit Garaiaren Ordezkaría), Maria Jesus **Aranburu** and. (Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Garaiaren Ordezkaría), Francisco Javier **Zubiaur** jn. (Nafarroako Gobernu eta Príncipe de Viana Instituzioko Ordezkaría), Enrike **Knörr** jn. (Euskaltzaindiko Ordezkaría), Ana **Toledo** and. (Deustuko Unibertsitateko Ordezkaría - Donostiako Campusa), Francisco **Etxeberria** jn. (Aranzadi Elkarteko Ordezkaría). Gonbidatua, Jose Angel **Ormazabal** jn. (Idazkari Teknikoa).

Beren ezin etoria adierazi dute: Isabelle **Ajuriaguerra** and. (Iparraldeko Lehendakariordea), Juan **Garmendia Larrañaga** jn. (Idazkari Gestioilea), Jesus M^a **Alkain** (Diruzaina), José **Zufiaurre** jn. (Diruzainordea), José M^a **Urkia** jn. (Medikuntza Zientziak Saileko Koordinatzailea), Xabier **Arlaban** jn. (Zinematografia Saileko Lehendakaria), Coro **Cillan-Apalategui** and. (Zuzenbide Saileko Lehendakaria).

Batzorde Nagusiaren Bilera hasi aurretik, Jose Alberto Pradera Jn. Txit Argiaren ordezkarí den Tomas Uribeetxeberria jaunak agur hitz batzuk luzatzen ditu, Aldun Nagusia bertaratutako ezin izana esplikatzen du urteko gestioaren deskargu egin behar baitu, ongietorria egiten die Batzordekideei eta Foru Jauregian beroriek hartzea den ohorea adierazten du. Animatzen du Eusko Ikaskuntza Oñatin sortu zeneko 75. Urtemuga honetan bere berrikuntza ahaleginetan jarrai dadin eta adierazten du Elk gerra aurreko aldian izan zuen paper garrantzitsua berreskuratu behar duela, haren sorrerako izpirituak guztiz indarrean baitirau. Zentzu honetan, 1993an Gazteizen egin beharreko Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua

euskal zientzia eta kultura bultzatu, koordinatu eta sustatzeko abagune garrantzitsua gerta daitekeela, azpimarratu zuen Aldunak.

Gregorio Monreal jaunak eskertzen dizkio hitz horiek eta adierazten du Batzorde Nagusi honetan Batzorde Instituzional bat sortzeko akordioa proposatu behar dela, Eusko Ikaskuntzaren ikerketa-programak instituzioei entzunez eta beraiekin hitz eginez sendotzeko eta sustatzeko helburuarekin.

Batzordea hasi aurretik, Lehendakariak Isabelle Ajuriaguerraren aita zen Julian Ajuria-guerra psikiatra gailen eta Collège de France-ko kidearen heriotzaren berri ematen du, familiari Batzorde honen izenean doluminak adierazteko eskatuz, bai eta haren ohoretan Ekitaldi bat egiteko konpromisua, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikiatria Katedrarekin lankidetzan seguruenik, hartarako konfidantzazko botoa eskatuz Batzorde Nagusiari, eta berau eman egiten zaio.

1.- 1992ko Abenduko 12aren Batzorde Nagusiko erabakien Aktaren onarpena.

1.1. Imanol Olaizola jaunak idatziz eginiko lau oharpenaren aurrean, Batzorde Nagusiak erabakitzen du: 1) Juan Cruz Alli Jaun Txit Argiaren ongietorri hitzaldiaren idazketa irakurri ondoren **onartzen da** Idazkariak idatzi duen bezala: "Gregorio Monreal jaunak ongi etorria egiteko esandako hitzen ondoren, Juan Cruz Alli Jaun Txit Argiak hitz egiten du, berarentzat Nafarroako Gobernuak eta Aldundiko egoitza den etxe honetan Batzorde Nagusiko kideak hartzea ohore dela esanez. Nafarroa, adierazi zuen, beti babestu eta lagundu du instituzio hau modu eraginkorrez eta hori bera izango da Gobernu honen jokabidea. Betidanik instituzio honek izan duen bertuteetarik bat, nabarmendu zuen, zientzi elkarteak izatea da eta euskal eta nafar gizartearen gainean halako ospe eta autoritatea izan duela, alderdietako eztabaidetatik ihes egin duelarik. Bere hitzak amaitzeko bere lankidetzak eta erabateko laguntza eskaini zuen, Francisco Javier Zubiaur jauna Eusko Ikaskuntzako Batzorde Nagusian solaskide eta ordezkari duin izango dena aurkeztuz".

2) Alberto Ansola Jaun Txit Argiaren hitzaldi-laburpenaren idazketa Olaizola jaunak proposatzen duen bezala **onartzen da**: "Eusko Ikaskuntza Instituzio Historikoaren alde egiten du apostu, historia horri begiratu bat ematen dio eta zientziaren panoraman dagokion postua berreskuratu behar duela dio. Elkarrekin topagune gerta dadin eskatzen du, bai eta elementu integratzaile eta bateratzaile kultur alorrean, hartarako bera buru den Instituziotik laguntza eta identifikazioa agintzen dituelarik".

3 eta 4) Oñatiko Simposiuma ospatzeko bi data posible jasotzen dira: Irailaren 16-18 eta 23tik 25era edo Irailaren 27tik 30era.

1.2. Tomas Urzainqui jaunak Lekuona Saria Francisco Salinas jaunari Lekuona Saria ematea dela eta, Xedapen testu bat proposatzen du Aktan sartua izan dadin, **Batzorde Nagusiak onartzen duena**:

"Pirinioen aldetik eta antzinako Euskal Herriak, Nafarroan aurkitzen dira hedapen eta bigentzia handiena duten Pirinioetako Zuzenbideko instituzio juridikoak, gaurko Europaren ikuspegitik beren balioa berriztatzen dutenak.

Nafarroako sistema juridikoa moldatzen duten instituzio hauei dedikatu die bereziki Francisco Salinas Quijada jaunak bere bizitza guztia, beraien azterketa, praktika, bilketa eta dibulgazioaren bidez.

Bere merezimenduz, Francisco Salinas Quijada jauna mila urtetan jurista nafarrek osatu duten katearen mailarik gailen agertzen zaigu, hamar mendeotan zehar Herri honen Zuzenbidea etengabe eguneratuz eta bilduz joan direnen artean.

Maiz foru-legeariak deitu izan diren legegizon hauei eta beraiek egindako lan gogorrari esker, sarri askotan benetako erresistentei dagokiena, bizirik dirauen eta benetan Herri honen barne-hezurdura edo egitura den Zuzenbidez hitz egin dezekagu gaur egun.

Gehiegizko merezimendu horien aurrean, ezagutza eta gorazarrea agertzeko boronda-teak bultzatu du Eusko Ikaskuntzako Batzorde Nagusia 1993ko Lekuona Saria Francisco Salinas Quijada jaunari eman dakion".

1.3. Joseba Agirreazkuenaga jaunak bai Rafael Lopez Atxurra jaunak eta bai berak Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresuaren inguruan esandakoak Aktaren Eranskin gisa sartzea proposatzen du. **Proposamena onartzen da.**

2.- Aurreko Ekitaldiako Erabakien betetzea.

Lehendakari jaunak aurreko ekitaldian onartuak izan diren eta Batzar Nagusien Akten Legalizazioa, Lehendakariaren Ahalordetzea, Asmoz ta Jakitez Berripapera, Dokumentazio Zentrua eta Eusko Ikaskuntzako Liburutegia ukitzen dituen Erabakiak berrikusten ditu, guztiok bete egin direla edo burutzeko bidean daudela esanez.

3.- Lehendakariaren Txostena.

Lehendakari jaunak adierazten du Miramar Jauregiko obrak Apirilaren 12an hasiko direla eta Jauregiko Gerentziaren ustetan eraiketa-epeak bete ahal izango direla.

Elkartearen Biurteko Txostena prestatzen ari da.

Egoizetako tresneria informatikoak normal funtzionatzen du eta pertsonala trebatu da beraren erabileran.

Asmoz ta Jakitez berripapera bazkide, komunikabide, Unibertsitate, ikastetxe eta abarren artean banatzen ari da. Hartzaileen zerrenda guztion artean osatu beharko dugu.

Manuel Lekuona Saria Francisco Salinas Quejada jaunari Emate Ekitaldia eta Nafarroako Gobernuako Lehendakariari igorritako gonbidapena direla eta, Batzorde Nagusiko kide guztion presentzia eta lankidetzat eskatzen du El Nafarroan sendotzeko hain esanguratsua den ekitaldi honetan.

Azkenik, EHuko Udako Ikastaroaren antolaketaren berri ematen du; Elren izenean Mikel Olazaran irakasleak zuzenduko du, "Zientzi Komunitatearen Ebaluaketa" gaia izango duenari.

4.- "Société d'Etudes Basques" elkartearen Erregistroa.

Eusko Ikaskuntza Iparraldean ahul izateak eta normalizazioaren premiak bultzatu dute Eusko Ikaskuntza bere Iparraldeko Lehendakariordetza sortzera eta Elkartea erregistratzea; azken urrats hau 1993ko Apirilaren 8an Baionako Suprefeturan burutu delarik 1901eko frantses legeak araututakoaaren arabera. Erregistro dokumentua honako bazkide hauek

aurkeztua izan da: Isabelle Ajuriaguerra and., Maite Lafourcade and., Teresa Lecumberri and., Trinidad de Goyheneche and. eta Jean Claude Larronde jn.

Batzorde Nagusiak **oneritzia eman dio** inskribatze honi.

5.- Araba, Gipuzkoa eta Iparraldeko Lehendakariordetzaren berriztatze prozesua.

Araudian aurikusitakoaren arabera eta Araba, Gipuzkoa eta Iparraldeko Lehendakariordeak, Jose Maria Ortiz de Orruño (90.01.13), Joxemartin Apalategi (89.12.16) eta Isabelle Ajuriaguerra (92.12.03), hautatuak izan zirenerako aldiak agortu direla eta, kargu horiek berriro beharra dago Batzorde Nagusiko kide guztiei dagoeneko bidali zaizkien eta indarrean diren arauen arabera.

Hala, beraz, Lehendakariordeen hautaketa prozesuari ekin behar zaio: Batzorde Nagusiak hirukote bat izendatu eta dagokion lurraldeko bazkideei aurkeztu behar die, berauek behin-betiko hautaketa egin dezaten. Lehendakariordegaien proposamenak Idazkaritzara bidali beharko dira 1993ko Maiatzaren 20a baino lehen.

6.- 1992 urteko Ekitaldiko Kontu Txostena.

Jesus Maria Alkain jn. Diruzaina bertaratu ezin izan denez, Idazkari Teknikoa den Jose Angel Ormazabal jaunak burutzen du aginduzko urteko Kontuen Txostena. Diruzainak oneritzia eman duela adierazten du lehendakariak eta aurretiko oharpen batzu egiten ditu:

1992ko EKITALDIKO KONTUAK

Egin den plana Kontabilitate Plan Orokorrak (E.D. 1643/1990 Abenduaren 20a) adierazitakoen barrenean aurkitzen da. Lau dokumentuk osatua da: Egoera-Balantzea, Sarrera eta Gastuen Kontua, Aurrekontuaren Likidazio Memoria eta Egoera. Batzordeak dokumentazioari buruz izango duen informazioa eta sarbidea erabatekoa izan beharko du, nahiz eta beste Elkartetan gertatzen denez, informazioa hiru mailatan egituratu beharra dago, hau da, Lehendakaritza-Exekutiboari dagokiona, Batzorde Nagusiari emango zaiona eta argitaratu beharko dena.

Aurten bi Txosten eranstean dira, Kontabilitate Plan Orokorraren eskaerak betetzen dituen eta Elren iharduerarako hurbilketa analitikoa, Gestio-Txostena alegia.

Ondorioak ateratzerakoan, sarrera eta gastuen kontuak agerian jartzen duen 16 milioi t'erdiko defizita azpimarraturik gertatzen da, zeren eta sarrera-kontzeptu guztiei dagozkien 81,4 milioiak ez baitira nahikoa izan ekitaldiko gastu guztiei dagozkien 97,9 milioiei aurre egiteko; defizit hau kitatzeko Elkarte-Fondoan kontura pasa behar izan da, beronek zenbateko horren murrizketa jasan duelarik eta 62.094.895 pezetatan geratu delarik.

Kitapen Egoerari dagokionez, aurikusitako zifren eta egindakoen arteko egokipen ia perfektua azpimarratu egiten du eta ohizko sarreraren eta Elkarrearen funtsezko gastuen arteko desbideraketa geroz eta handiagoa dela nabarmentzen du. Instituzioek sarrerak murrizten dituzte edo ez dira KPIra iristen, gastuak neurri handiagokoan igotzen diren bitartean. Horregatik, ekarpenen arazoa berrikusi beharra dago, edo iharduerak edo zordundu egin behar. Gai hau guztiz garrantzitsua da eta Batzorde Institutuzionalak lehentasunez aztertu beharrekoa.

Agerkariet dagokienez, sarreraren eta gastuen aldea txikia da salmenta eta babesleiei esker. Ikastaroak autofinantzatzen dira baina Elren puntu ahula E.H.H.G.D.Z. da, beroni dagokion gastu garbia 7,5 milioi izan delarik. Elk finantzazioaren inguruko arazo guztiak hertsiki birplanteatu beharra du: sarrera iturrien dibertsifikazioa, instituzioetako elkarbizketa zintzoa, agerkariaren babespena eta bazkide babesleak erakartzea (Udalak, Enpresak, Aurrezki Kutxak...).

Jose Angel Ormazabal jaunari hitza eman aurretik, Lehendakariak zoriontzen du berau, Diruzainarekin batean burutu duten lan bikainagatik.

Jarraian, Jose Angel Ormazabal Idazkari Teknikoak 1992ko Abenduaren 31ko Egoera-Balantzea eta Ekitaldiko Sarrera eta Gastuen Kontua irakurtzeari ekiten dio, bi dokumentutako Memoria analitikoaren atalak astiro zehazten dituela. Azkenik, 1992ko Aurrekontuaren Kitapen Koadroaren analisia burutzen du (1., 2. eta 3. Eranskinak).

Batzorde Nagusiak Egoera-Balantzea, Sarrera eta Gastuen Kontua eta Aurrekontuaren Kitapena onartzen ditu.

Ondoren, 1991ko Ekitaldiari dagokion Auditoriaren Txostena irakurtzeari ekiten dio, berau Arabako Foru Aldundiko Auditoria eta Kontrol Saileko Javier Alvarez de Arcayak burutua delarik (4. Eranskina), eta adierazten du 1992ri dagokiona Gipuzkoako Foru Aldundiak hasia duela dagoeneko.

7.- 1993 urteko Aurrekontuaren Onarpena, egoki eritiz gero.

Idazkari Teknikoa den Ormazabal jaunak Aurrekontuak Programaren arabera egin direla adierazten du, bai eta Batzorde Tipiari aztertutako Lehen Zirraborro batean oinarriturik, gero birmoldaketa bati ekin zaiola bi pieza bereizitan: Aurrekontu Arrunta eta Aparteko Aurrekontua.

Aurrekontu Arrunta egiterakoan jakitera ematen du Gastuak Sarreraren atalari egokitu zaijakola, beroni aurreko ekitaldiko Saldoa gaineratuz, berau soluzio egokia ez den arren, zeren eta Elk numero gorritan funtzionatu dueneko aurtengoa bezalako egoerak ekartzen baititu.

Batzorde Nagusiak Aurrekontu Arrunta (5 Eranskina) onartzen du, Nafarroako Gobernu Ordezkaría den Fco. Javier Zubiaur jaunak egiten duen salbuespenarekin, zeinetan esaten duen Nafarroako Gobernuak Eusko Ikaskuntzaren kontuan bai Eusko Ikaskuntzarako eta bai Jose Miguel de Barandiaran Fundaziorako Esleipenak sartzen baditu, sarrera gisa jaso beharko direla, Gastuen atalean Fundaziorako transferentzi sail bat agertzen baita.

Aparteko Aurrekontuari dagokionez, Elkarrekin aurtengorako programatu dituen proiektu zabal batzuk bertan sarturik daudela esaten du, 60 milioi pezetako zifra aurikusten dela hartarako, berau berrikusia eta egokitua izan beharko duen Sarreraren atala osatuko duten kontrapartiden arabera.

Batzorde Nagusiak konfidantzazko boto bat ematen dio Batzorde Tipiari kasu bakoitzaren posibilitateak aztertzen jarrai dezan.

8.- Kanpoko laguntzak eskatzeko erregimena.

Batzorde Nagusiari jakinarazten zaio Elkarrekin hainbat Institutio eta Erakundetan buruturiko fondo-eskaerak sortzen dituen disfunkzioez eta alor honetako koordinazio ezak

Eusko Ikaskuntzaren iharduera eta irudi onerako dakartzan kalteez. Batzorde Nagusiak erabakitzen du aurrerantzean, urteko Aurrekontu Orokorra egiterakoan, ekitaldian garatu beharreko iharduera guztietarako behar diren fondoak zehazturik gera daitezen. Aparteko Aurrekontuari dagozkion iharduerak direla eta, fondoan bilakuntzan diharduten Elkarteko kideek aldeaz aurretik gaztigatuko diote Lehendakariari eskatu nahi duten kopurua, bera- ren justifikazioa eta egin beharreko burubideak. Lehendakariak, egoki eritziz gero, idatziz emango du baimena egin behar diren gestioak burutu daitezen.

9.- Argitalpenak.

.- NEIA-RIEV Aldizkariaren Zuzendariordearen izendapena.

Lehendakariak Nicanor Ursua Lezaun, EHUko Filosofia Katedratikoa, curriculum bikai- na duena, zenbait hizkuntzaren jabe dena eta nazioarteko harreman ugari dituen NEIA aldizkariaren zuzendariordeatzat proposatzen du, Julio Caro Baroja jaunari lagun diezaion aldizkariaren zuzendaritzan eta berrikuntzan. Batzorde Nagusiari arrazoi funtzionalengatik egoki deritzaio zuzendariorde berriak euskara ikasteko ahalegina egin dezan, proposamen hau Ursua jaunak onartua izan delarik.

Batzorde Nagusiak **oneritzia eman dio** izendapen honi.

.- Renoko Basque Studies Program-arekiko lankidetzatza.

NEIA nazioarteko aldizkari bihurtzeak euskal kulturarekin zerikusia duen instituzio sail baten lankidetzaren premia sortzen du, beraien artean Renoko Basque Studies Program mintegiak garrantzi nabarmena duenak. Beronek proiektua hiru ardatzen ingurua umatzea dakar: Eusko Ikaskuntzen inguruko lanen kalitate handia, Euskal Herrian urtean zehar egin- dako obra onenaren iruzkina eta euskal gaia ukitzen duten aldizkariaren aldizkaria. Ingelesaren erabilera kontu handiz aztertu beharra dago. Prozesu guzti honek urratsez-urrats garatu beharko da eta datozen Batzorde Nagusietan tratatzen jarraituko dugu.

.- Argitalpen Zerbitzu Batzorde bat sortzeko proposamena.

Eusko Ikaskuntzaren Argitalpen Zerbitzuari buruz aurkeztu den araudia eta Batzorde Nagusiko kide guztiei bidali zaien **onartzen da**, bai eta Agirreazkuenaga jaunak proposa- turiko Argitalpen Zerbitzua izenaren aldaketa; hemendik aurrera "Ediciones Eusko Ikas- kuntzaren Argitalpenak" izena hartuko du, berau argiago delako eta izen beretsuko institu- zio unibertsitarien argitalpen zerbitzuekin nahasbiderik gerta ez dadin.

Halaber onartzen dira Eusko Ikaskuntza Argitalpenen Batzorderako izenak: Joseba Agirreazkuenaga jn., Jose Angel Ormazabal jn., Juan Garmendia Larrañaga jn., Leopoldo Zugaza jn., German Yanke jn., Idoia Estornes Lasa and., Juan Antonio Garmendia jn. eta Xabier Zabala jn.; delako batzordea geroago Siletako ordezkariekin zabaldu daitekeelarik.

Ediciones Eusko Ikaskuntza Argitalpenak inprimaturiko materialen eta ikusentzunezko- en edozelako argitalpenez eta lankidetzako argitalpenez arduratuko den organismoa izan- go da, bai eta Elko bazkideentzako interesgarri gerta daitezkeen obren hedapenez.

10.- Iberdrola S.A.rekiko konbenio markoa.

Batzorde Nagusiak bere oneritzia ematen dio Enpresak Eusko Ikaskuntzaren Bazkide babesle izateari.

Batzorde Nagusiak ikerketa garatzeko Iberdrola eta Elren artean burutu beharreko Konbenio markorako Zirriborroa onartzen du. Testua Batzordekide guztiei igorri zaie dagoeneko.

Halaber, "Euskal Herriko Zientzi Komunitateri buruzko Azterketa" proiektua burutzeko aipaturiko enpresa horrekin Konbenio berezia sinatzea onartzen du. Proiektu hau Cristina Lavia and., Mikel Olazaran jn. eta Victor Urrutia jn. irakasleek zuzendua izango da eta gerora azterketa eta proposamen landuagoei ekitea ahalbideratuko du. Proiektua bederatziko milioikoa da eta baimena ematen zaio Lehendakariari, kontratu bat sinatzerakoan gertatzen diren aitzingibel konkretuen arabera, erabakirik egokiena har dezan Elrako portzentaiari dagokionean.

11.- Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua.

Joseba Agirreazkuenaga jaunak inprimaturiko lehn zirkularra aurkezten du, bai eta Nestor Basterretxea artistak Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresurako diseinaturiko kartela, beroni lankidetzat desinteresatua eskertu behar zaiolarik. Kongresuaren diseinu orokorrak Bigarren Zirkularreko fitxa teknikoan agertu beharreko profesionalen hiru hilabeteko lanahaleginak eskatu ditu, bai eta Idazkari Teknikoa den Gentza Belaustegigoitia jaunarena, berau babesleaz arduratuko baita argitaletxe eta instituzioen artean. Kongresuaren Oinarrizko Diseinua Bilbon aurkeztu da jadanik unibertsitate eta kultur instituzioen artean eta Kongresurako matrikula 10-15 mila pezetaren arteko zifra pentsatu da. Kongresuak instituzio politikoek eta unibertsitatek osaturiko Ohorezko Batzordea izan beharko du, Zientzi eta Antolakuntza Batzorde bat: Joseba Agirreazkuenaga jn., lehendakaria; Rafael Lopez Atxurra jn., Zientzi Diseinurako Zuzendaria; eta zientzi arloen arduradunak, une hauetan osatzen ari direnak; eta Aholku Batzorde bat, Hezkuntza Sistemarekin zerkusia duten instituzioek osatua.

Batzorde Nagusiak **berretsi egiten du** Agirreazkuenaga jaunaren proposamen guzti hauek, eta antolaketa talde osoari bere lankidetzat desinteresatua eskertzen dio.

12.- 75. Urtemugako Ekitaldiak.

Jose M^a Ortiz de Orruño jaunak 75. Urtemuga dela eta egin beharreko ospakizun batzuren inguruko gestioen berri ematen du: Erakusketak, 6-8 milioi artean bide direnak, eta horrexegatik hobe litzateke agian erakusketa apalxeagoak antolatu eta haien ordeztu eta argazkiak bilduko litzuzkeen oroimenezko liburu bat argitaratzea. Halaber, bi testu bilduma prestatu dira, bata idazketa normalekoa eta beste bat zatikatua, hamar paneletan modu sintetiko eta publizitarioan erakutsia izateko. Batzordea laster bilduko da berriro alderdi guzti hauek hobeto zehaztu ahal izateko.

Zientzi Elkarteel buruzko Simposium-ari dagokionez, Joseba Agirreazkuenagak planteatzen du beraien kopurua hain handia den unibertsitate instituzio guztiei gonbidapena luzatzeko komenigarritasuna. Batzorde Nagusiak **konfidantzazko botoa** ematen dio berau aztertu eta erabakia har dezan.

13.- Kulturen Europako Gutuna.

1992ko Abenduaren 10ean Edinburg-en ospaturiko "Towards a culturally connected market economy. Protection of cultural diversity in Europe after Maastricht" Mintegiari

buzuz Eusko Ikaskuntzaren ordezkari gisa bertan izandako Enrike Knörr jaunak egin duen txostena **onartzen da**.

14.- Bazkide berrien zerrenda.

Bazkide berrien zerrenda bere osotasunean **onartzen da** —akta honen eranskin gisa ezartzen da—, eta beste izen bat gaineratzen da: Miguel Elorza Esporosin jn. Donostia. Natur Zientziak eta Historiaurrea.

15.- Sailen funtzionamenduaren ebaluazioa.

Sailen funtzionamenduari buruz eginiko lehen azterketa baten ondoren, Joxemartin Apalategi jaunak adierazten duenez, hiru egoera bereiz daitezke: Programa propioekin diharduten Sailak —onetsi eta bultzatu beharko liratekeenak—; akatsez funtzionatzen dutenak —programa propio eta bereziak sor ditzaten ahalegindu behar— eta oso gaizki funtzionatzen dutenak. Azken hauek bertan behera utzi beharko lirateke harik eta ondo funtzionatzeko garantiak izan artean.

Saileko Lehendakarien bilkura berri baterako deia luzatu egingo da eta bertatik ateratako ondorioak berriro plazaratuko dira datorren Batzorde Nagusian, premiazko neurriak behar den funtsarekin har daitezen.

16.- Bazkideen Direktorio bat sortzearen egokitasuna.

Lehendakariak Bazkideen Direktorio bat egiteko eta argitaratzeko premia planteatzen du, beraien arteko harremanak errazteko eta Elkartea bera sustatzeko bidea izan dadin.

Batzorde Nagusian eztabaidatu ondoren, bazkide guztiei proiektu horren errealizazioaren berri ematea erabakitzen da, bertan ez ateratzea edo argitaratu beharreko datuak murritzeta eska dezaketela ohartuz. Dena den, delako Direktorioa hartarako baliabide ekonomikoak izatean obratu beharko da.

17.- Historia Garaikideko Dokumentazio Zentrua. Hartu beharreko erabaki zenbait.

Elk egun jasaten duen aurrekontuko baliabide eskasia dela eta, HGDZko Aholku Batzordearen izenean Joseba Agirreazkuenaga jaunak gogoan hartzeko zenbait puntu proposatzen dizkie Batzorde Nagusiko kideei:

- 1.- HGDZko zerbitzu publikoa aldi baterako ixtea, bazkide eta ikerleentzat irekia jarraituko delarik aldez aurretik abisatu beharko dutelarik.
- 2.- Zentruko materialen bilketa aldi kronologikoa mugatzea: Errepublikatik 1993 arte.
- 3.- Hurbileko beste zentru batzuek dagoeneko bildu dituzten egungo aldizkari eta agerkariak kentzea.
- 4.- Tokiko historia aldizkari eta liburuak eskuratzea eta biltzea, gai orokorrez diharduten liburuen bilketa kenduz eta aldizkari espezializatuak eskuratzeko azterketa zehatza eginuz.
- 5.- Hasiak diren fondoak katalogazioa eta edizioa: Irujo Fondoa, Elko Artxibo Historikoa eta ORT-PTE fondoa.

- 6.- Dokumentazio Zentrua Donostiako Villa Asunción-eko beheko solairura aldatzea eta bertan kokatzea (EHUK utzitako lokalak).
- 7.- HGDZrako Barne Araudia aurkeztea eta kontrataturiko pertsonalaren kontratuaren amaiera.

Batzorde Nagusiak proposamen guztiok **onartzen ditu**.

Gregorio Monreal jaunak EHUKo katedratikoa den Jose Luis de la Granja Zentruko Aholku Batzordean sartzea proposatzen du.

18.- Saileko Lehendakarien Txostena.

Aldetz aurretik Batzorde Nagusira bidaliak izan diren Musika, Historiaurre-Arkeologia, Zuzenbide, Hizkuntza eta Literatura eta Medikuntza Sailetako Lehendakarien txosten guztiak onartzen dira. Beraietan hainbat lanen berri ematen da: A. Donostiaren Kantutegia prestatzeko lanen amaiera; Erizaintzaren Historiaren idazketan esku hartzea eta Humanitate medikoei buruzko III. Ikastaroaren barne "Komunikabideen Kontrol Soziala" gai zuen Ihardunaldiaren ospakuntza, bai eta beraietako bakoitzean garaituriko proiektu eta iharduerak. Txostenak Akta honen 7. eranskinean azaltzen dira.

19.- Elren Liburutegia Berreskuratzea.

Imanol Olaizola jaunak Gipuzkoako Aldundiko Kultura Alduna den Maria Jesus Aranburu andereak bidalitako gutunaren berri ematen du. Bertan idatzizko dokumentu baten bidez Elren antzinako Liburutegiaren titularitatea aitortzeko borondatea adierazten du, egun Aldundiko fondoekin bat egiten duena, baina Koldo Mitxelena Liburutegi barnean sail autonomo eta berezi bat osatzeko zailtasun teknikoa adierazten du.

Imanol Olaizola jaunak sei puntuko proposamen bat egiten dio Lehendakaritzari, Elk ezsein akordiora iritsi aurretik aztertu beharko lituzkeenak. Lehendakariak dioenez, urrats berriak eman beharra dago abiatuturiko norabidean.

20.- Batzorde Instituzionalaren Sorrera.

Lehendakariak Batzorde Instituzionala sortzea kontseilatzen dituzten arrazoiak azaltzen ditu. Ondoko testua eztabaidara eta bototara jartzen du:

"1. Arautegiko 17. artikulua aitortzen dizkion ahalmenen indarrez, Batzorde Nagusiak BATZORDE INSTITUZIONALA sortzea erabakitzen du.

2. Aipaturiko Batzordea honako bazkideok osatua izango da:

- a) Euskal Autonomi Elkarteak Lehendakaria edo haren ordezkari izango den pertsona.
- b) Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaria edo haren ordezkari izango den pertsona.
- c) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundietako Lehendakariak.
- d) Elko Lehendakaria.

Behin Batzordea osatuz gero, Akitaniako Lurralde Kontseiluko Lehendakaria edo haren ordezkari izango den pertsona Batzordean sartzea kontuan hartuko da.

3. Batzorde Institutuzionalari honako funtzio hauek dagozkio:

- a) partehartzaile diren instituzioen kultur lehentasunak Elri jakinaraztea.
- b) instituzioek programaturiko kultur iharduerak eta Elkarteak buru ditzaketenak Elra bideratzea.
- c) instituzio partehartzaileek Elren oraingo eta geroko orientabide orokorra ebaluatzea.
- d) Elren aurrekontu-politikaren artikulazioa, Elk kreditaturiko premiak eta instituzio partehartzaileek dezaketena kontuan hartuz.
- e) instituzio sortzaileek urtero burutzen duten Elren Ekitaldi ekonomikoari buruzko Auditoriaren azterketa eta ebaluaketa.

4.- Lehendakariak bilkura bakoitzari dagokion lan-programa eta beraietan harturiko erabakien eta ondorioen berri emango dio Batzorde Nagusiari, eta aldez aurretik haren baime-na lortu beharko du gobernu-organo horri dagozkion konpetentzien gaineko erabakiak hartzeko".

Batzorde Nagusiak Batzorde Institutuzionalaren sorrea **onartzen du**.

Lehendakariak, halaber, Batzorde Institutuzionalari Memorandum bat egiteko eta harekin batean 1993ko Aurrekontua aurkezteko konfidantzazko botoa eskatzen du.

Batzorde Nagusiak **konfidantzazko botoa** ematen du testu hori egiteko.

21.- Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa.

Lehendakariak oroitarazten ditu guztion gogoan diren egitateak hala nola Fundazioaren Lehendakariaren izendapena, Uztailean buruturikoa, eta arazo hau nola tratatu zen Abenduan ospaturiko Batzorde Nagusiaren bileran. Bestalde, azkenaldi honetan sorturiko gutuneriak dihardu, berau Batzordekidetxek igorri zaielarik. Bidalitako dokumentazioan agertzen ez diren gertakarien berri ematen du: Urtarrilaren 15ean Fundazioko Lehendakariarekin izandako bilkura eta Eusko Jaurilaritzako Kultur Kontseilariak hala eskaturik Martxoaren 24ean burutu zena: bilera Elren Donostiako egoitzan egin zen eta berta eskuhartu zuten: Eusko Jaurilaritzako Kultur Kontseilaria den Joseba Arregi jaunaz gain, Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria den Javier Marcotegui jn., Ander Manterola jn., Jose Miguel Barandiaran Fundazioko Lehendakaria eta Adrian Celaya jn., Jesus M^a Alkain eta Gregorio Monreal jn.

Bilera horretan, Eusko Jaurilaritzaren eta hiru Foru Aldundien izenean ihardun zuen Joseba Arregi Kultur Kontseilari jaunak nabarmendu zuen instituzio partehartzaileak ohar-tu direla azkenaldi honetan Fundazioak hartu beharko duen planteamendu berriaz. 1993ko Urtarrilaren 14ean Fundazioaren Patronatoak ospaturiko bileran hartu ziren erabakien artean, Eusko Ikaskuntzarekin Institutuzioaren birfundazioaz arduratuko den batzorde baten sorrerari dagokiona nabarmentzen da. Alipaturiko erreformaren alderdi azpimagarrienak honako hauek dira: Fundazioko Lehendakaria eta Idazkaria izendatzeko modua, Fundazioaren helburuen definizio zehatzagoa eta Barandiaran Beka Eusko Ikaskuntzari itzultzea, Fundazioaren baitan Eusko Folklore Aldizkariaren izenburua geldituko litzatekeelarik. Elkar-

tearen aldetik Elren izenean bileran izan zirenek Uztailean Fundazioko Lehendakariaren hautaketaren arazoan erakutsitako borondate on eta malgutasun bera agertu zuten, bai eta erreformaren metodologiari dagokionean Eusko Ikaskuntzari zor zailon begirunearen premia. Ikustarazi zen Fundazioaren izaera atipikoak fundatzaile kideen gogoari erantzutzen diola, bereziki bi puntuotan: Lehendakariaren eta Idazkariaren izendapena eta Fundazioa desegiteko kasuan beraren ondasunak Eusko Ikaskuntzari itzuli beharra. Sorrerako borondatea Estatutuaren objektibaturik legoke, halako moldez non fundatzaile kide bat hilez gero, beste parteari dagokion sorrerako borondate hori mantentzearen alde egitea. Halaber jakitera ematen da Elren aldetik ez dagoela trabarik Instituzioek inplikazio handiagoa izan dezaten Fundazioaren zuzendaritzan, nahiz eta inplikazio hori ziurtatzeko bestelako formulak badirelako ustetan zeuden, baina zatiketarik gabe eta sorrerako izpiritua errespetatuz. Instituzioen eskuhartzea Elkarteko Batzorde Nagusian edo Batzorde Instituzionalean, Batzorde Nagusi honetarako proposatua dena, formula ekonomikoa eta malgua litzateke, eta honek Fundazioaren aginpidean Instituzioen eskuhartze handiagoea bideratuko luke.

22.- Galde-eskariak.

German Yanke jaunak galdera batzu zuzentzen dizkio lehendakariari NEIAko Erredakzio Kontseiluan izendatua den Floristan doktorea aita ala semea ote den, deitura bereko bi zientzilari baitira gutxienez. Bestalde, Saileko Lehendakariaren bileraren akta eta HGDZko fondoak Mirakruzeko Villa Asunción-era eramanez gero izango duen erabilera aipatzen ditu; azkenik, Uztaileko Batzorde Nagusian Barandiaran Fundazioaz harturiko erabakiaren objektibotasuna aipatzen du.

Bere erantzunean lehendakari jaunak adierazten du Floristan jaunaren izendapena burutu gabe dagoela baina nolanahi ere Floristan Samanes jaunaz ari dela; bestalde, adierazten du printzipioz ez dela formalki betebeharrekoa Saileko Lehendakariaren bileren akta jasotzea, organo erregularra ez delako, nahiz eta bere ustetan eztabaida eta erabakiez idatziz kontu ematea beharrezkoa den. Hondaribiko Ramery jauregiaren erabilerari dagokionez, lehendakariak adierazten du aldaketa egin aurretik ez direla ezagutuko zehatz mehatz zeintzu izango diren premiak. Erabaki kolektiboaren islada pertsonalari dagokionean, lehendakariak bere adostasuna adierazten du Yanke jaunaren planteamenduarekin.

Olaizola jaunak Europako Kontseiluko Tokiko eta Lurraldeko Aginpideen Konferentzian Nazioarteko Lankidetzaren Hitzarmenaren inguruan aho batez harturiko erabakia irakurtzeari ekiten dio eta Eusko Ikaskuntzako Lehendakariari eskatzen dio instituzioen ordezkari gailenekin instituzioen arteko Hitzarmena gestionatu dezan, gure elkarrekiko harremanen markoa izan dadin eta 1918 eta 1976an jadanik Herriari zerbitzeko konpromisua izan zena berretsirik gerta dadin. Eskaria aktan jasotzen da eta interes handienez hartuko da kontuan, zentzu honetan har daitezkeen ekimenez kontu emango delarik.

German Yankek baimena eskatzen du Mintegi bat antolatzeko Euskal Herriko Kazetariaren Elkargoekin lankidetzan, berorien bizitza profesionalarekin zerikusia duten arazoez iharduteko.

Lehendakariak adierazten du Mintegi hori guztiz egoki eta onuragarria izango dela eta modu horretako ekimenak eskertzen ditu.

● Acta de acuerdos nº 79 de la reunión de la Junta Permanente de Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos - celebrada el 27 de Marzo de 1993 en el Palacio de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia.

Asistentes:

D. Gregorio **Monreal** (Presidente), D. José M^a **Ortiz de Orruño** (Vicepresidente por Alava), D. Joseba **Agirreazkuenaga** (Vicepresidente por Bizkaia), D. Joxemartin **Apalategi** (Vicepresidente por Gipuzkoa), D. Tomás **Urzainqui** (Vicepresidente por Navarra), D. Edorta **Kortadi** (Secretario), D^a Gurutzi **Arregi** (Vicesecretaria), D. Imanol **Olai-zola** (Miembro Vitalicio), D^a. Mirentxu **Goñi** (Presidente de la Sección de Antropología y Etnografía), D^a Laura **Aisenson** (Presidente de la Sección de Artes Plásticas y Monumentales), D. Xabier **Zabala** (Presidente de la Sección de Ciencias Naturales), D. José Javier **Granja** (Presidente de la Sección de Educación), D^a Lola **Valverde** (Presidente de la Sección de Historia y Geografía), D. José M^a **Etxebarria** (Presidente de la Sección de Lengua y Literatura), D. Germán **Yanke** (Presidente de la Sección de Medios de Comunicación), D. Alvaro **Arrizabalaga** (Presidente de la Sección de Prehistoria y Arqueología), D. Tomás **Uribeetxebarria** (Representante de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia), D^a María Jesús **Aranburu** (Representante de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa), D. Francisco Javier **Zubiaur** (Representante del Excmo. Gobierno de Navarra y de la Institución Príncipe de Viana), D. Enrique **Knörr** (Representante de Euskaltzaindia), D^a. Ana **Toledo** (Representante de la Universidad de Deusto - Campus de Donostia), D. Francisco **Etxeberria** (Representante de la Sociedad Aranzadi). Invitado D. José Angel **Ormazabal** (Secretario Técnico).

Excusan su asistencia: D^a Isabel **Ajuriaguerra** (Vicepresidente por Iparralde), D. Juan **Garmendia Larrañaga** (Secretario Gestor), D. Jesús María **Alkain** (Tesorero), D. José **Zufiaurre** (Vicesorero), D. José M^a **Urkia** (Coordinador de la Sección de Ciencias Médicas), D. Xabier **Arlaban** (Presidente de la Sección de Cinematografía), D^a Coro **Cillán-Apalategui** (Presidente de la Sección de Derecho).

Antes de comenzar la reunión de la Junta Permanente, el Sr. D. Tomás Uribeetxebarria, en representación del Excmo. Sr. D. José Alberto Pradera, dirige unas palabras de salutación en las que excusa la ausencia del Diputado General por tener que hacer el descargo anual de gestión, da la bienvenida a los miembros de la Junta y manifiesta el honor que supone recibir a estos en su Palacio Foral. Anima a seguir en el empeño de renovación a Eusko Ikaskuntza en el año del 75 Aniversario de su creación en Oñati y manifiesta que EI/SEV debe recuperar el importante papel desarrollado durante la preguerra, dado que su espíritu fundacional permanece vigente y plenamente actual. La celebración del XII Congreso de Estudios Vascos, que va a tener lugar en Vitoria en 1993, puede ser, remarcó el Diputado, un momento importante para promocionar, coordinar y promover el mundo de la ciencia y de la cultura vasca.

D. Gregorio Monreal agradece sus palabras en esta Junta e indica que en esta Junta Permanente se va a proponer el acuerdo de creación de una Comisión Institucional cara a consolidar y promocionar los programas de investigación de Eusko Ikaskuntza en escucha y diálogo con las instituciones.

Antes de dar comienzo a la Junta, el Presidente comunica el reciente fallecimiento del eminente psiquiatra y miembro del Colegio de Francia D. Julián Ajuriaguerra, padre de Isabelle Ajuriaguerra, pidiendo se transmita el pésame a su familia en nombre de esta Junta y el compromiso de celebrar un Acto conmemorativo de su figura, posiblemente en colaboración con la Cátedra de Psiquiatría de la Universidad del País Vasco-EHU para lo que pide un voto de confianza a la Junta Permanente, que le es concedido.

1.- Aprobación del Acta de acuerdos de la Junta Permanente del 12 de Diciembre de 1992.

